1.- Ordenes de Ejecución demandas por causa de la seguridad, salubridad y ornato públicos: Los propietarios de terrenos, urbanizaciones, edificaciones, instalaciones y carteles deberán, de acuerdo con lo establecido en los arts. 181 de la LS y 10 del RDU, mantenerlos en condiciones de seguridad, salubridad y ornato públicos. El mantenimiento supone la obligación del propietario de mantener el bien inmueble en una situación de suficiencia por lo que respecta a las referidas circunstancias mediante las obras o por los medios técnicos normales o de ordinaria reparación.

2.- El Ayuntamiento viene obligado a hacer efectivo el cumplimiento de dicho deber dominical, mediante la correspondiente orden de ejecución que se tramitará de acuerdo con el siguiente procedimiento:

a) Comprobación de las deficiencias por el técnico municipal, a requerimiento de la Alcaldía, de oficio o a instancia de cualquier interesado.

b) Audiencia del propietario afectado.

c) Orden de ejecución dictada por la Alcaldía, que deberá contener:

- Motivación de la acción interventora administrativa.
- Relación detallada de las obras concretas de reparcelación.
- Plazo adecuado al efecto para su ejecución voluntaria por el propietario afectado.

d) Resolución de la Alcaldía de incoación de expediente sancionador para imposición de multa, una vez transcurrido sin efecto el plazo de cumplimiento voluntario.

e) Nuevo requerimiento al propietario (en la misma resolución referida de la Alcaldía) para el cumplimiento de la orden inicial, otorgando nuevo plazo al efecto.

f) Ejecución, en su caso, subsidiaria de las obras por el Ayuntamiento, con cargo al propietario, conforme al procedimiento regulado en el art. 106 de la LPA.

3.- Ordenes de Ejecución impuestas por razón de interés estético: La orden de ejecución de la Alcaldía viene legitimada en razón de la salvaguarda del interés estético público, de acuerdo con lo establecido en los arts. 182 de la LS y 11 del RDU, así como en la Normativa de estas Normas relativa a las condiciones estéticas de la edificación y del entorno. La orden se referirá a las obras de reforma, pero sólo de la fachada o espacios visibles desde la vía pública. El deber del propietario de sufragar el coste de las obras, solamente es exigible en tanto éstas se mantengan en el ámbito del deber de conservación. Es de aplicación el procedimiento expresado en el apartado primero, por lo que se refiere al expediente sancionador y ejecución subsidiaria por el Ayuntamiento. Se precisa del consentimiento del propietario o de resolución del Juzgado de

Auzialdiko eta Argibideetarako Epaitegiarena, ordezkotza gauzatzeak etxean sartzea agintzen badu, horrela aurreikusten baita Espainiako Konstituzioaren 18.2 artikuluan eta LOPJaren 87.2 artikuluan.

4. KAPITULUA: HIGIEZINEN JABEEN KONTSERBAZIO BETE-BEHARRAK.

1. atala. Ondasun higiezinak kontserbatzeko betebeharrak.

47. artikulua: Kontserbazio betebeharrak.

1.- Jabeek eraikinen, hiritartzeen, lurren, kartelen eta instalazioen segurtasuna, osasuna eta apaindura publikoa zaindu eta kontserbatu behar dute.

48. artikulua: Kontserbazio betebeharren edukia.

1.- Lurraren Araubideari eta Hiri Antolamenduari buruzko Legearen 181. artikuluan araututakoari jarraituz, honako hauek kontserbatzeko obligazioa dago:

a) Lurren, hiritartze partikularren, eraikinen, kartelen eta instalazioen baldintza partikularrak mantentzeko egiten diren lanak eta obrak, betiere, aipatutako elementuen segurtasuna, osasuna eta apaindura publikoa kontserbatuz. Lan eta obra horien baitan sartzen dira, edonola ere, eraikinetako elementuak eta zerbitzuak behar bezala erabiltzeko eta funtzionatzeko egiten diren lan eta obrak, eta elementu edo instalazio horietako osagaiak aldatzeko egiten diren ohiko lan eta obrak.

b) Arau hauetako 58. artikuluan ezarritako prozeduran xedatutakoari jarraituz, egungo higiezinaren balioaren ehuneko berrogeita hamar (%50) baino gehiago kostatzen ez diren obrak, baldin eta obra horiekin eraikuntzek eta instalazioek lehen zituzten segurtasuna, osasuna eta apaindura publikoa berreskuratzen bada, eraikin eta instalazio horien egonkortasuna edo erabileraren oinarriko baldintzak mantentzeko balio duten elementu kaltetuak konponduz edo finkatuaz, eta era berean, Arau hauetan zehaztutako segurtasun, osasun eta apaindura publikoa bermatzeko gutxienezko baldintzak higiezinetan ezartzeko egiten diren obrak.

2.- Atal honetan araututako betebeharren ondorioetara, udalaren hiritartzeak hiritartze partikularrekin baliokidetu dira, baldin eta hiritartze horiek mantentzea legez edo hitzarmenez hirigintzako erakundeetara badagokio.

3.- Udalak hiritartzea behin-behingo bere esku hartzen ez duen bitartean, erakunde sustatzaileari dagokio instalazioak eta hirigintza zerbitzuak kontserbatzea, mantentzea eta martxan jartzea.

49. artikulua: Segurtasuneko, osasungarritasuneko eta apaindurako gutxienezko baldintzak.

1.- Aurreko artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetara, honako hauek dira gutxienezko baldintzak:

a) Hiritartzeetan:

. Lur-sail bakoitzaren jabeak du zerbitzu sareetako hartuneak mantentzeko erantzukizun osoa, behar bezala funtziona dezaten.

. Hiritartze partikularretan, jabe bakoitzari dagokio galtzadak, espaloiak, banaketa eta zerbitzu sareak, argiak eta bertako beste elementu guztiak kontserbatzea.

b) Eraikinetan:

. Segurtasun baldintzak: Eraikinek hesiak eta estalki itxiak izan-go dituzte urik pasa ez dadin eta babes egiturak suaren kontra eta erorketaren aurkako babes elementuak behar bezala mantenduko dira. Egituraren elementuak behar bezala kontserbatuko dira euren helburua, eustea, bete ahal izateko, korrosioaren eta kanpo eragileen eta zimenduak kalte ditzakeen iragazduraren eraginezko defektuetatik defendatuz. Fatxadak, estalkiak eta itxidurak estaltzeko materialak behar bezala kontserbatuko dira, pertsonentzako eta ondasunentzako inolako kalterik gerta ez dadin.

. Osasungarritasuneko baldintzak: Zerbitzuak, osasun instalazioak eta aireztapena eta argiak egoera onean mantenduko dira euren eginkizuna behar bezala bete ahal izateko. Eraikina eta gune libreak garbi mantenduko dira, pertsonak kutsatzeko edo pertsonentzako arriskugarri gerta daitezkeen intsektu, parasito, sagu eta noraezean dabilzan animaliarik ager ez dadin. Keak eta partikulak

Primera Instancia e Instrucción si la ejecución subsidiaria requiere la entrada en el domicilio, y/o restantes edificios o sus accesos, del propietario según se previene en los arts. 18.2 de la CE y 87.2 de la LOPJ.

CAPITULO 4.- DEBERES DE CONSERVACION DE LOS PROPIETARIOS DE LOS INMUEBLES.

Sección 1ª. Deberes generales de conservación de los bienes inmuebles.

Art. 47.- Obligaciones de conservación.

1.- Los propietarios de las edificaciones, urbanizaciones, terrenos, carteles e instalaciones deberán conservarlas en buen estado de seguridad, salubridad y ornato público.

Art. 48.- Contenido del deber de conservación.

1.- Se consideran contenidas en el deber de conservación regulado por el art. 181 de la Ley sobre Régimen del Suelo y Ordenación Urbana:

a) Los trabajos y obras que tengan por objeto el mantenimiento de los terrenos, urbanizaciones particulares, edificios, carteles, e instalaciones de toda clase en las condiciones particulares que les sean propias en orden a su seguridad, salubridad, y ornato público. En tales trabajos y obras se incluirán en todo caso las necesarias para asegurar el correcto uso y funcionamiento de los servicios y elementos propios de las construcciones y la reposición habitual de los componentes de tales elementos o instalaciones.

b) Las obras que, sin exceder en su coste de ejecución del cincuenta por ciento (50%) del valor actual del inmueble, determinado con arreglo al procedimiento establecido en el art. 58 de estas Normas, repongan las construcciones e instalaciones a sus condiciones preexistentes de seguridad y salubridad, reparando o consolidando los elementos dañados que afecten a su estabilidad o sirvan al mantenimiento de sus condiciones básicas de uso, e igualmente aquellas que tengan por objeto dotar al inmueble de las condiciones mínimas de seguridad, salubridad y ornato definidas en las presentes Normas.

2.- A efectos de las obligaciones reguladas en esta Sección, las urbanizaciones de propiedad municipal, cuyo mantenimiento esté legal o contractualmente atribuido a entidades urbanísticas de conservación se equiparán a las urbanizaciones particulares.

3.- En tanto la urbanización no sea recibida provisionalmente por el Ayuntamiento, su conservación, su mantenimiento y la puesta en perfecto funcionamiento de las instalaciones y servicios urbanísticos serán por cuenta y con cargo a la entidad promotora de aquella.

Art. 49.- Condiciones mínimas de seguridad, salubridad y ornato.

1.- A los efectos previstos en el art. anterior se entenderán como condiciones mínimas:

a) En urbanizaciones:

. El propietario de cada parcela es responsable del mantenimiento de las acometidas de las redes de servicio en correcto estado de funcionamiento.

. En urbanizaciones particulares, correrá por cuenta de sus propietarios la conservación de calzadas, aceras, redes de distribución y servicio, alumbrado, y restantes elementos que configuren las mismas.

b) En construcciones:

. Condiciones de seguridad: Las edificaciones deberán mantenerse con sus cerramientos y cubiertas estancas al paso del agua, contar con protección de su estructura frente a la acción del fuego, y mantener en buen estado los elementos de protección contra caídas. Los elementos de su estructura deberán conservarse de modo que garanticen el cumplimiento de su misión resistente, defendiéndolos de los efectos de la corrosión y agentes agresores, así como de las filtraciones que puedan lesionar las cimentaciones. Deberán conservarse los materiales de revestimiento de fachadas, cobertura, y cerramientos de modo que no ofrezcan riesgo a las personas y a los bienes.

. Condiciones de salubridad: Deberá mantenerse el buen estado de las redes de servicio, instalaciones sanitarias, y condiciones de ventilación e iluminación de modo que se garantice su aptitud para el uso a que estén destinadas y su régimen de utilización. Mantendrán tanto el edificio como sus espacios libres con un grado de limpieza que impida la presencia de insectos, parásitos, roedores

kanporatzeko gutxitze eta kontrol elementuen funtzionamendua ongi kontserbatuko dira.

2.- Aurreko atalean aipatutako ezaugarriak karteletan eta instalazioetan ere aplikatuko dira, betiere, bere izaera kontuan hartuta.

50. artikulua: Udalaren laguntza.

1.- Aurreko artikuluko 1, b) atalean aipatzen den obrak gauzatzeak kostuak Arau hauetako 48. artikuluko 1, b) atalean ezarritako mugak gainditzen baditu, eta higiezina kontserbatzeko, gizarte intereseko eta erabilera publikoko arazoak badira tarteko, konponketa lanek eragindako kostuen gehiegizkoa Udalak berak ordain dezake dirutan, higiezina LAHALaren 183.2.a) artikuluan aurreikusitako araubidetik kanpo utziaz eta jabeari behar diren obra guztiak gauza ditzala eskatuz.

51. artikulua: Kontserbaziorako gauzatze aginduak.

1.- Nahiz eta Arau hauetan eta arauak garatzen dituzten tresnetan ez jaso horrelakorik, Udalak, eta hala badagokio, Foru Aldundiak, estetikagatik eta LAHALaren 182. artikuluan oinarrituta, kontserbazio eta berrikuntza obrak gauzatzea agin dezake ondorengo kasuetan: (ikus 46. artikulua).

a) Bide publikoetatik ikusteko moduko fatxadetan, kontserbazio egoera txarrean dagoelako, edo alboko finka bat erabilera libreko gune bilakatu dutelako, edo eraikina gehieneko altueratik gora gelditu delako eta ondorioz artekormak agerian gelditu direlako.

b) Lorategi eta gune libre partikularretan, bide publikoetatik ikusteko modukoak direlako.

2.- Artikulu honetako a) atalaren kasuan, baoak, balkoiak eta begiratokiak edo beste edozein elementu egitea agin daiteke fatxadan, edo hala badagokio, fatxada dekoratzea. Era berean, behar diren neurriak ere agin daitezke, eraikinak behar bezalako apaindurak eta higiezia izan dezan.

3.- Baldin eta kontserbazio lanak egitea jabeari badagokio, eta horrelako lanak egiten badira, edo obra horiek direla eta, higiezinaren balioak gora egiten badu, obra horien kostua jabeek ordainduko dute, euren ordaintzea dagokien mugaraino, eta ezarritako muga hori gaindituz gero, Udalak, eta hala badagokio, Foru Aldundiak, euren funtsetatik ordainduko dute, guztion onerako bada.

52. artikulua: Maizterrek dituzten kontserbazio betebeharrak.

1.- Atal honetan jabeek buruz xedatutakoaz gain, kontuan hartu behar da alokairuei buruzko legediak higiezinak errentan dituzten maizterrei hainbat betebeharrak eta eskubide ematen diela.

2. atala. Katalogatutako ondarearen kontserbazio espezifikoa.

53. artikulua: Herri onurako izendatzea.

1.- Eraikinak eta bestelako ondasun higiezinak edo kultura interesgunea dutenak katalogatzeak, horiek guztiak kontserbatzeko, babesteko eta zaintzeko obligazioa dakar. Jabeek dagokie, eta Administrazio publikoari berari dagokion zatian, aipatutako helburu horiek direla eta ondorioztatzen diren betebeharrak gauzatzea.

54. artikulua: Katalogatzearen helmena.

1.- Eraikin edo elementu bat kultura intereseko ondasun higiezinat jotzen edo katalogatzen denean, Titulu honetako 5. Kapituluaren adierazitako eraispena egoera adierazten duen araudi arruntetik kanpo geldituko da ondasun hori.

Eraikin bat horrela katalogatzean, ezin da bertan inolako elementu ezarri bata bestearen gainean eraikinaren elementuetatik kanpo, hala nola, iragarkiak, kartelak, banderatoak, kableak, posteak edo markesinak, Babesari buruzko Plangintza Berezian baimendutako kasuetan izan ezik.

3.- Aurreko zenbakian aipatzen diren katalogatutako higiezinetan dauden elementuak urte bete baino lehenago kendu, eraitsi edo erretiratu behar dira, eraikina dagokion katalogoan ezartzen den egunetik aurrera, edo Arauak behin betiko onartzen diren egunetik aurrera kontatzen hasita, Ordenantzak baimentzen dituen kasuetan izan ezik.

4.- Kapitulu honetako lehen atalean aipatzen den kontserbatzeko betebeharrak orokorraren ondorioetara, eraikin bat katalogatzean, jabeak beharturik daude Arau hauetan edo Babesari buruzko

u y animales vagabundos que puedan ser causa de infección o peligro para las personas. Conservarán en buen funcionamiento los elementos de reducción y control de emisiones de humos y partículas.

2.- Las condiciones señaladas en el apartado anterior serán de aplicación a los carteles e instalaciones de acuerdo con su naturaleza.

Art. 50.- Colaboración municipal.

1.- Si el coste de ejecución de las obras a que se refiere el apartado 1,b) del art. anterior rebasara los límites establecidos en el 1,b) del art. 48 de las presentes Normas y existieren razones de utilidad pública o interés social que aconsejaran la conservación del inmueble, el Ayuntamiento podrá optar por subvencionar el exceso del coste de la reparación, excluyendo al inmueble del régimen previsto en el art. 183.2.a) de la L.S y requiriendo al propietario la ejecución del conjunto de obras necesarias.

Art. 51.- Ordenes de ejecución para la conservación.

1.- Aun cuando no se deriven de las presentes Normas ni de ninguno de sus instrumentos de desarrollo, el Ayuntamiento y, en su caso, la Diputación Foral, por motivos de interés estético y al amparo del artículo 182 de la LS, podrá ordenar la ejecución de obras de conservación y reforma en los casos siguientes: (ver art. 46).

a) Fachadas visibles desde la vía pública ya sea por su mal estado de conservación, por haberse transformado en espacio libre de uso un predio colindante, o por quedar la edificación por encima de la altura máxima y resultar medianerías al descubierto.

b) Jardines o espacios libres particulares, por ser visibles desde la vía pública.

2.- En el caso del apartado a) de este art. podrá imponerse la apertura de huecos, balcones, miradores o cualquier otro elemento propio de una fachada o, en su caso, la decoración de la misma. Podrán imponerse asimismo las necesarias medidas para el adecuado adecentamiento, ornato e higiene.

3.- Las obras se ejecutarán a costa de los propietarios si estuvieran contenidas en el límite del deber de conservación que les corresponde o supusieran un incremento del valor del inmueble y hasta donde éste alcance, y se complementarán o se sustituirán económicamente con cargo a fondos del Ayuntamiento y, en su caso, de la Diputación Foral, cuando lo rebasaren y redunden en la obtención de mejoras de interés general.

Art. 52.- Contribución de los inquilinos al deber de conservación.

1.- Cuando se establece en la presente Sección, respecto de los deberes de los propietarios, se entiende sin perjuicio de las obligaciones y derechos que para los arrendatarios de los inmuebles se derivan de la legislación locativa correspondiente.

Sección 2ª. Conservación específica del Patrimonio Catalogado.

Art. 53.- Declaración de utilidad pública.

1.- La catalogación de edificios y demás bienes inmuebles o de interés cultural comporta la obligación de su conservación, protección, y custodia. Los deberes que se derivan de la atención a los expresados fines corresponden a sus respectivos propietarios y a la Administración Pública en la parte que le corresponda.

Art. 54.- Alcance de la catalogación.

1.- La catalogación como bien inmueble de interés cultural de un edificio o elemento exceptúa al mismo el régimen común de declaración del estado ruinoso en los términos que se expresan en el Capítulo 5 de este Título.

2.- La catalogación de un edificio implica la prohibición de instalación en el mismo de toda clase de elementos superpuestos y ajenos a la edificación, como anuncios, carteles, banderines, cables, postes, o marquesinas, salvo en los supuestos autorizados por el Planeamiento Especial de Protección.

3.- Los elementos a que hace referencia el número anterior existentes sobre inmuebles catalogados, deberán suprimirse, demolerse, o retirarse en el plazo máximo de un (1) año, a contar desde la fecha de inclusión en el Catálogo de la edificación correspondiente, o desde la definitiva aprobación de las Normas, con excepción de aquéllos que estuvieren autorizados mediante Ordenanza.

4.- A efectos de los deberes generales de conservación a que hace referencia la Sección primera del presente Capítulo, la catalogación de una edificación implica, para sus propietarios, la obliga-

Plangintza Berezian agindutako obrak egitera, estetika eta ingurumen ezaugarrietara egokitzeko, baina indarrean dagoen legediak edo aurrerantzean onartuko diren legeek ezarritako diru laguntzak, salbuespenak edo hobariak jasotzeko eskubidea izango duela kontuan hartuta.

3. atala. Orubeen kontserbazio espezifiko eta aldi baterako okupazioa.

55. artikulua: Kontserbazio betebeharraren edukia.

1.- Orube baten jabeak, ondorengo segurtasun eta osasun baldintzak bete beharko ditu orube horretan:

a) Hesiak: Orubeak itxita egongo dira, Arau hauetan zehaztutako hesiek in itxita, hain zuzen.

b) Lurren tratamendua: Istripuak eragin ditzaketen putzuak edo desnibelak babestu edo kendu egingo dira.

Garbitasuna eta osasungarritasuna: Orubea beti garbi egongo da, inolako hondakin organiko edo mineralik gabe, bertan gaixotasun kutsakorrek eragiten dituzten animaliak edo landareak hazi ez daitezten, edo usain txarririk ez dadin.

5. KAPITULUA: ERAIKINEN HONDAMEN EGOERA.

1. atala. Hondamen egoera adieraztea.

56. artikulua: Adierazpenaren bidezotasuna. Hondamen arruntaren edo hurbiltzeko hondamenaren espedientea.

1.- LAHALaren 183. 2 artikuluan aurreikusitako kasuetan eraikinen hondamen egoera adieraziko da. Kalifikazio edo inbentarioen zerrenda espediente ireki zaien elementu eta higiezinari Euskal Kultura Ondareei buruzko 7/1990 Legea aplikatuko zaie.

I. HONDAMEN ARRUNTA:

1.- Eraikinen bat edo bere zatiren bat hondamen egoeran badago, Udalak, ofizioz edo edozein interesdunek hala eskatuta, eraikin hori osorik edo bere zatiren bat botatzea erabakiko du, eta hondamendi egoera adieraziko du, aldezturik jabea eta bertan bizi direnak audientzian hartu ondoren, erortzeko arriskua larria den kasuetan izan ezik.

Hondamendi egoera adieraztean, higiezinaren automatikoki Orubeen eta Hiritartu gabeko Lurren Erregistroan sartuko da, LAHALaren 183. Artikuluan ezarritakoari jarraituz.

2.- Ondorengo kasuetan hondamendi egoera adieraziko da:

a) Adibidez, egituraren oinarriko elementuak erabat agorturik dituen eraikinaren kasuan, baliabide arruntekin teknikoki konpondu ezin den kaltea (hondamendi fisikoa) gertatzen denean.

b) Konpontze lanen kostua eraikinak edo solairuek balio duten prezioaren %50 baino gehiago denean (hondamendi ekonomikoa), lurraren balioa kontuan hartu gabe.

c) Hiritartze egoera dela eta, eraikina bota behar dela uste denean (hiritartze hondamendia), hala nola, eraikina antolamendutik kanpo egoteagatik obrarik baimendu ezin denean.

3.- Prozedura (HDaren 18tik 28ra bitarteko artikuluetan xedatutakoa jarraituko da):

a) Espedienteari Alkatetzaren ebazpenak emango dio hasiera, ofizioz edo edozein interesdunek hala eskatuta, udal teknikariak txostena presta dezan aginduz. Interesdunek eskatuta denean, interesdunek idazki bat aurkeztu behar dute, eta bertan honako datuak adieraziko dituzte: hondamendiaren egoera, bertan bizi direnen, eta hala badagokio, higiezinaren gainean benetako eskubideak dituzten titularren zerrenda. Idazkiarekin batera, teknikariak emandako ziurtagiria aurkeztu behar da. Ziurtagiri horretan hondamendi adierazpena zergatik eskatzen den adieraziko da, eta era berean, eskubidea egitean, bere ustez, bertako jendea hari eta dagokion erabakia hartu arte bertan bizi daitekeen, eta horretarako baldintzak betetzen diren egiaztatuko da. Hondamendi adierazpena eskatzen duena jabea bera bada, titularitatea ere egiaztatu beharko du.

b) Espediente jabeari, egoiliarrei eta titularrei jakinaraziko zaie, eta txosten teknikoaren berri eman, hamar (10) eta hamabost (15) egun bitarteko epean, eskubideak defendatu ahal izateko, idatziz egoki irizitako dokumentuak eta egiaztagiria aurkez ditzaten. Epe luza daiteke, baina gehienez ere, emandako epearen erdia gehiago.

ción de realizar las obras requeridas por las presentes Normas o por el Planeamiento Especial de Protección, para su adecuación a las condiciones estéticas y ambientales, sin perjuicio de su derecho a beneficiarse de las ayudas, subvenciones, exenciones o bonificaciones establecidas por la Legislación vigente o que en lo sucesivo se apruebe.

Sección 3ª. Conservación específica y ocupación temporal de solares.

Art. 55.- Contenido del deber de conservación.

1.- Todo propietario de un solar deberá mantenerlo en las condiciones de seguridad y salubridad siguientes:

a) Vallado: Todo solar deberá estar cerrado mediante una valla de las determinadas en las presentes Normas.

b) Tratamiento de las superficies: Se protegerán o eliminarán los pozos o desniveles que pudieran ser causa de accidentes.

c) Limpieza y salubridad: El solar deberá estar permanentemente limpio. Sin ningún resto orgánico o mineral que pueda alimentar o albergar animales o plantas portadoras o transmisoras de enfermedades, o producir malos olores.

CAPITULO 5.- ESTADO RUINOSO DE LAS EDIFICACIONES.

Sección 1ª. Declaración de ruina.

Art. 56.- Procedencia de la declaración. Expedientes de ruina ordinaria ó ruina inminente.

1.- Procederá la declaración del estado ruinoso de las edificaciones en los supuestos del número 2 del art. 183 de la LS. Para los elementos e inmuebles sobre los que se incoe expediente de calificación o inventariado, les es de aplicación la Ley 7/1990 sobre Patrimonio Cultural Vasco y más concretamente su art. 36.

I.- RUINA ORDINARIA:

1.- Cuando alguna construcción o parte de ella estuviere en estado ruinoso, el Ayuntamiento, de oficio o a instancia de cualquier interesado, la declarará, y acordará la total o parcial demolición, previa audiencia del propietario y de los moradores, salvo inminente peligro que lo impidiera.

La declaración de ruina producirá la inclusión automática del inmueble en el Registro de Solares y Terrenos sin Urbanizar, de acuerdo con lo establecido en el art. 183 de la L.S.

2.- Se declarará el estado ruinoso en cualquiera de los siguientes supuestos:

a) Daño no reparable técnicamente por medios normales (ruina física), tal es el caso del edificio que presente un agotamiento generalizado de sus elementos estructurales fundamentales.

b) Coste de la reparación superior al cincuenta por ciento (50%) del valor actual del edificio o plantas afectadas (ruina económica), excluido el valor del terreno.

c) Circunstancias urbanísticas que aconsejaren la demolición del inmueble (ruina urbanística), como por ejemplo la realización de obras que no pudieran ser autorizadas por encontrarse el edificio en situación de fuera de ordenación.

3.- Procedimiento (se estará a lo dispuesto en los arts. 18 a 28 del R.D.U.):

a) Iniciación mediante resolución de la Alcaldía, de oficio o a instancia de cualquier interesado, ordenando la emisión de un informe por el técnico municipal. La iniciación a instancias de los interesados requiere la presentación por éstos de un escrito en el que se harán constar los datos en que se basa el estado de ruina, relación de moradores, así como titulares de derechos reales sobre el inmueble, si los hubiere. A este escrito se ha de acompañar certificado expedido por técnico competente, en el que se justifique la causa de instar la declaración de ruina y se acredite, asimismo, si en el momento de la petición, el edificio reúne, a su juicio, condiciones que permitan a sus ocupantes la permanencia en él hasta que se adopte el acuerdo que proceda. Si el que solicita la declaración de ruina es el propietario del inmueble, ha de acreditar también su titularidad.

b) Se pondrá de manifiesto el expediente al propietario, moradores y titulares de derechos reales, dándoles traslado de los informes técnicos para que, en un plazo de diez (10) a quince (15) días, prorrogable por la mitad del concedido, aleguen y presenten por escrito los documentos y justificaciones que estimen pertinentes en defensa de sus respectivos derechos.

c) Jabeak aurkeztutako txosten teknikoan pertsoneri kalteak eragiteko moduko hurbileko arriskua dagoela adierazten bada, Alkatetzak ikuskapen teknikoa egitea aginduko du eta, emaitza ikusi ondoren, neurririk egokiena hartuko du higiezinaren bizigarritasunari buruz, hau da, bertan bizi direnak kanporatzeari eta eraikinak erausteari buruz. Behar adina ikuskapen egingo da, hala iritziz gero, espediente izapideak irauten dute bitartean, eta behin ikuskapenak amaitu ondoren ere bai, harik eta higiezina eraitsi egin behar dela egiaztatu arte.

d) Udal teknikariak adituen irizpena hamar (10) eguneko epean emango du, aldeaz aurretik higiezina ikuskatu ondoren, betiere, horretarako duen epea amaitu eta gero.

e) Ebazpena: Espediente amaitzean, Udalbatzari igorriko zaio proposamena, egindako izapide guztiekin batera. Udalak eman beharreko ebazpenak ondorengo erabakiren bat jasoko du:

Higiezinaren hondamendi egoera adieraztea, eraispena aginduz, eta higiezina erausten hasteko epea ere ezarri.

Higiezinaren zati baten hondamendi egoera adieraztea, eraispena aginduz, baldin eta zati hori gainontzeko eraikuntzatik bereizita badago.

Honako hau adieraztea: nahiz eta higiezinaren zatiren bat hondamendi egoeran egon, egoera hori ez dela nahikoa erabateko hondamendi egoera adierazteko. Kasu horretan, behar diren konponketa obrak egitea aginduko da.

Hondamendi egoerarik ez dagoela adieraztea, higiezinaren segurtasuna, osasungarritasuna eta apaindura bermatzeko dagozkion neurriak hartuaz.

f) Espedientearen ebazpena bertan parte hartu duten guztiei jakinaraziko zaie eta higiezinako egoiliar guztiei, nahiz eta ez bertaratu.

g) Jabeak ez badu Udalak agindutakoa betetzen, Udalak berak beteko du, baina kostuak jabeari kargatuz. Larraldi kasuetan edo erabakia atzeratzeak jendea arriskuan jartzen badu, Udalak edo Alkateak berak, ardura osoa bere gain hartuaz, higiezinaren bizigarritasuna eta bertan bizi direnak bota ala ez bota erabakiko du.

II. HURBILEKO HONDAMENDIA:

1.- Ofizioz edo partikularrek hala eskatuta, edo hondamendi egoera adierazteko idazkia aurkeztearen ondorioz, udal teknikariak egindako egiaztapenak direla eta, Alkatetzak uste badu higiezina erabat hondaturik dagoela, eta lehenbailehen eraitsi behar dela higiezin hori, bestela pertsonentzako arriskua bailegoke, kasu horretan, Alkatetzak bertan bizi direnak botatzeko erabakia hartuko du, eta dagozkion neurriak hartuko ditu, eraikinaren segurtasuna bermatzeko, betiere, espediente izapidetzeak eskatzen duen denbora kontuan hartu ondoren.

2.- Hori dela eta, hondamendi eskabidea edo edozein pertsonak egindako salaketa jaso eta gero, Alkatetzak ikuskapena egitea aginduko du, ahalik eta azkarren, eraikinean, eta udal teknikariak txostena prestatuko du higiezinaren segurtasun eta bizigarritasun baldintzei buruz. Txostenean babes neurri bereziak lehenbailehen hartzea proposatuko du, hala badagokio, hala nola, zurrak eta puntalamenduak burutzea. Alkateak hogeita lau (24) ordutan hartuko du dagokion erabakia, udal teknikariak prestatu duen txostena jaso ondoren.

3.- Zurkaitzeko edo puntalatzeko neurriak hartu ondoren, irizpen teknikoak higiezina okupatzen jarraitzeko aukera eskaintzen badu, espedienteak bere bidea jarraituko du. Hala ere, beharrezko ikuskapenak egingo dira, baldintzak aldatzen diren edo bestelako ezaugarri batzuk azaltzen diren egiaztatzeako, eta ondorioz, bestelako erabakiren bat hartu behar den erabakitzeako. Espediente amaitu arren, izapideak iraun duten bitartean eraikina zaintzeko hartzen diren neurriekin jarraituko da, harik eta higiezina erabat hustu arte.

57. artikulua: Kalte konponezinak.

1.- Baliabide arruntak erabilia teknikoki konpondu ezin diren kalteak dira kalte konponezinak, hau da, kalteak konpontzeko, egindako kalte guztien herena baino gehiago eraikin behar denean.

2.- Egitura kalkuluen arabera, eraikinari eusteko balio duten eraikinaren zatiei deitzen zaie egiturazko elementuak.

c) Cuando en el informe técnico presentado por el propietario, se alegue la existencia de peligro inmediato que pueda producir daños a las personas, se ordenará por la Alcaldía una inspección técnica y, a la vista de la misma, se acordará lo que proceda respecto a la habitabilidad del inmueble, desalojo de sus ocupantes, y demolición de las construcciones. La inspección podrá repetirse cuantas veces se considere oportuno, durante la tramitación del expediente y, una vez finalizado, hasta que conste la demolición del inmueble.

d) El técnico municipal, una vez transcurrido el plazo concedido, evacuará dictámen pericial previa inspección del inmueble, en el plazo de diez (10) días.

e) Resolución: Concluido el expediente, se elevará propuesta con todo lo actuado al Ayuntamiento Pleno, y la resolución del mismo habrá de contener alguno de los pronunciamientos siguientes:

- Declarar el inmueble en estado ruinoso, ordenando la demolición, fijándose el plazo en que ésta ha de ser iniciada.

- Declarar en estado ruinoso parte del inmueble, cuando ésta parte tenga independencia constructiva del resto, ordenando su demolición.

- Declarar que, aun existiendo ruina en una parte del inmueble, ésta no alcanza a cubrir los requisitos para una declaración general, ordenando la ejecución de las obras de reparación necesarias.

- Declarar que no hay situación de ruina, ordenando las medidas pertinentes destinadas a mantener la seguridad, salubridad y ornato público del inmueble.

f) La resolución del expediente se notificará a todos los que hubieren sido parte en el mismo y a todos los moradores del inmueble, aunque no se hubieran personado.

g) Si el propietario no cumpliere lo acordado por el Ayuntamiento, lo ejecutará éste a costa del obligado. Si existiere urgencia y/o peligro en la demora, el Ayuntamiento o el Alcalde, bajo su responsabilidad, por motivos de seguridad, dispondrá lo necesario respecto a la habitabilidad del inmueble y desalojo de sus ocupantes.

II.- RUINA INMINENTE:

1.- Cuando, como consecuencia de comprobaciones realizadas por el técnico municipal, de oficio o a solicitud de particulares, o como consecuencia del escrito de iniciación del expediente de ruina, se estime por la Alcaldía que la situación del inmueble o construcción ofrece tal deterioro que resulta obvia la necesidad de intervenir con urgencia mediante su demolición, existiendo peligro para las personas si se demora dicha demolición, en función del tiempo que supone la tramitación del expediente, dicha autoridad municipal acordará el desalojo de los ocupantes y adoptará las medidas pertinentes para la seguridad de la construcción.

2.- A tal efecto, recibida la instancia solicitando la declaración de ruina o la denuncia de cualquier persona, se dispondrá por la Alcaldía con carácter de urgencia una visita de inspección, emitiéndose informe por el técnico municipal sobre las condiciones de seguridad y habitabilidad del inmueble. El informe propondrá, en su caso, la adopción de medidas excepcionales de protección, tales como apeos o apuntalamientos, que han de ser aplicados con carácter inmediato. El Alcalde adoptará la resolución que proceda en el plazo de veinticuatro (24) horas desde la recepción del informe emitido por el técnico municipal.

3.- Si el dictámen técnico expresara la posibilidad de continuar ocupándose el inmueble, previa la adopción si procediere de medidas de apeo o apuntalamiento, se proseguirá el expediente por los trámites normales. No obstante, se girarán las visitas de inspección que sean necesarias, por si varían las circunstancias o aparecieran otras nuevas que aconsejaran una decisión distinta. Finalizado el expediente, se mantendrá la vigilancia en los mismos términos que durante su tramitación, hasta el total desalojo del inmueble.

Art. 57.- Daños no reparables.

1.- Incurren en la consideración de daños no reparables técnicamente por medios normales, aquéllos cuya reparación implique la construcción de elementos estructurales de extensión superior a un tercio de la totalidad de los mismos.

2.- Elementos estructurales son aquellas partes de la edificación a las que el cálculo estructural atribuye una misión portante y resistente reconocida.

3.- Artikulu honetako 1. zenbakian aipatzen den zenbatekoa honela zehaztuko da:

a) Eraikinak dituen egiturazko elementuen inbentario zehaztua egingo da, eta bertan, elementu bakoitzak zenbat metro dituen eta osoarekiko nolako portzentzia duen adieraziko da.

b) Elementu bakoitza zenbateko proportzioan eraiki behar den adieraziko da, eta zenbateko proportzioan ez.

c) Konpondu beharreko kalteen zenbatekoa zehaztuko da, aldez aurretik, b) atalean aipatzen diren eraiki beharreko elementu bakoitzaren proportzioak eta a) atalean aipatzen diren egiturazko elementu gutzietan proportzioak batu eta gero.

58. artikulua: Konpontzeko obrak.

1.- Honako hauek dira konpontzeko obrak: eraikina lehenengo segurtasun eta osasungarritasun baldintzetan uzten duten obrak, eta batez ere, eraikinean kaltetutako elementuak finkatu, ziurtatu edo ordezkatzeko lortzen duten obrak, eta eraikinaren egonkortasuna ziurtatzeko edo bere erabilera nagusiak mantentzeko balio duten obrak.

2.- Konponketak eragingo dituen kostua zehazteko, Konponketaren Oinarrizko Proiektua idatziko da, eta bertan honako hau jasoko da, gutxienez:

a) Lehen zeuden baldintzen, kaltetutako elementuen eta konpontzeko hartu diren soluzio teknikoaren memoria, behar bezala deskribatuta eta zehaztuta, soluzio horiek egokiak diren egiaztatuz.

b) Jatorrizko proiektuaren dokumentu grafiko eta idatzien benetako kopiak, horrelakorik dagoen kasuan.

c) Eraikinaren egungo egoera adierazten duen behar adina dokumentu grafiko, behar bezala zehaztuta, eta bertan, kaltetutako zatiak eta konpontzeko hartuko diren neurriak zein diren adieraziko da.

d) Konponketa obra bakoitzaren aurrekontua, behar bezala zehaztuta, partidak teknikoki bereizita eta merkatuko prezioetan adierazita.

3.- Eraikinaren egungo balioa objektiboki zehazteko, eraikinaren birjarpen balioetik abiatuko da, eta urteen arabera izaten den balioa galaraztea kontuan hartuta prezioa jaitsiko. Babes Ofizialeko Etxebizitzak saltzeko moduluak erabiliko dira birjarpen balioa zehazteko oinarritzat. Balioa galaraztea kalkulatzeko, ondorengo formularen bidez kalkulatzeko koefizientea erabiliko da: $C_e = 1 - 0,25 (\log.x - 1)^2$, non x eraikinak dituen urteak diren. Eraikinak ezin-go ditu hamar (10) urte baino gutxiago izan, ezta hirurehun (300) baino gehiago ere.

59. artikulua: Antolaketa-erakunde eta bizigarritasun-erakunde harremana.

1.- Antolamenduko Arauekin edo bere garapen tresnekin bat ez etortzea, ez da, berez, eraikinaren eraispena ekarri behar duen hiritartze egoera bat, aipatutako tresnetan higiezinara eraitsi behar dela erabakitzen den kasuetan izan ezik. Higiezinara Hirigintza Plangintzarekin bat ez datorrenean, eta ondorioz, erastea erabakitzen denean, Arau hauetako 67 eta 68. artikuluetan xedatutakoa errespetatuz eraitziko da.

2.- Etxebizitzaren bizigarritasuna dela eta, instalazioek edo zerbitzuek dituzten gabeziak ez dira kontuan hartuko eraikinaren hondamendi egoera adierazterakoan, izan ere, ez dute zerikusirik egoera horrekin.

6. KAPITULUA: ERAIKITZEA SUSTATZEA.

60. artikulua: Hirigintzako betebeharrak betetzeko epeak.

1.- Hiri Lurraren eta Lur Hiritargariaren jabeak dagozkion betebeharrak bete beharko ditu, eta ondorioz, eta izaera horretarako ahalmenak ondorengo epe hauetan eskuratu beharko ditu:

a) Arau hauek indarrean sartzean Alorreko Plana onarturik duten Lur Hiritargarriko sektoreetan lagapen, berdin banatzeko eta hiritartze betebeharrak betetzeko, epea Alorreko Planean ezarritakoa izango da. Dena den, epe hori ez da inoiz ere lau (4) urtetik gorakoa izango.

b) Bestela, hau da, Alorreko Plana onartu gabe badago, lau (4) urteko epea dago Alorreko Plana onartzeko, Arau hauek indarrean sartzen diren egunetik aurrera kontatzen hasita, eta aurreko paragrafoan aipatutako betebeharrak betetzeko, berriz, Alorreko Planak

3.- La determinación de la extensión a que se refiere el número 1 de este art. se llevará a cabo mediante:

a) El inventario pormenorizado de los elementos estructurales de la edificación con expresión de su cuantía en las unidades métricas habituales y de la proporción de cada uno en relación con el total expresado de forma porcentual.

b) La proporción de cada uno de los elementos que deba ser reconstruido, expresada, igualmente, en forma porcentual.

c) Se precisará la extensión de los daños a reparar mediante la suma de los productos de los porcentajes de cada elemento a reconstruir a que se refiere el apartado b) y los porcentajes del elemento de la totalidad de los estructurales a que se refiere el apartado a).

Art 58.- Obras de reparación.

1.- Son obras de reparación las que reponen el edificio a sus condiciones preexistentes de seguridad y salubridad, y en especial las que tienen por objeto consolidar, asegurar o sustituir los elementos dañados en aquél que afecten a su estabilidad o sirvan al mantenimiento de sus condiciones básicas de uso.

2.- El coste de ejecución de la reparación se determinará mediante la redacción de un Proyecto Básico de Reparación que contenga al menos:

a) Memoria descriptiva detallada de las condiciones preexistentes a reponer, de los elementos dañados y de las soluciones técnicas adoptadas para la reparación, justificando la idoneidad de las mismas.

b) Reproducción fidedigna de la documentación gráfica y escrita del Proyecto original si existiere.

c) Documentación gráfica suficiente y detallada de la edificación en su estado actual, con señalamiento de las partes dañadas y de las soluciones adoptadas para su reparación.

d) Presupuesto pormenorizado del coste de cada una de las obras de reparación, según partidas técnicamente diferenciables y a precios unitarios de mercado.

3.- La determinación objetiva del valor actual de la edificación se llevará a cabo a partir del valor de reposición de la misma, minorado en razón de la depreciación que por su edad haya sufrido la edificación. Servirán de base para la determinación del valor de reposición los módulos de venta de las Viviendas de Protección Oficial. La depreciación se estimará a través de un coeficiente calculado a través de la siguiente fórmula: $C_e = 1 - 0,25 (\log.x - 1)^2$, siendo x el número de años del edificio que no podrá ser inferior a diez (10), ni superior a trescientos (300).

Art. 59.- Relación con la ordenación y la habitabilidad.

1.- La simple disconformidad con las Normas Subsidiarias o sus instrumentos de desarrollo no constituirá circunstancia urbanística que haga aconsejable la demolición de un inmueble, salvo que la demolición haya sido establecida como determinación de los citados instrumentos. La demolición de un inmueble por su disconformidad con el Planeamiento Urbanístico se efectuará sin perjuicio de lo señalado en los arts. 67 y 68 de éstas Normas.

2.- Las deficiencias referentes a instalaciones o servicios en materia de habitabilidad de las viviendas no serán tenidas en cuenta a efectos de la declaración en estado ruinoso de la edificación, por carecer de relación con dicho estado.

CAPITULO 6.- FOMENTO DE LA EDIFICACION.

Art. 60.- Plazos para el cumplimiento de los deberes urbanísticos.

1.- El propietario del Suelo Urbano y Apto para Urbanizar deberá cumplir sus deberes urbanísticos y consiguientemente, adquirir las diferentes facultades de ese carácter en los plazos siguientes:

a) Para el cumplimiento de los deberes de cesión, equidistribución y urbanización de los sectores del Suelo Apto para Urbanizar, que a la entrada en vigor de las presentes Normas cuenten con Plan Parcial aprobado, será el señalado en éste sin que pueda ser superior a cuatro (4) años.

b) En caso contrario, es decir en caso de no contar con Plan Parcial aprobado, el plazo para la aprobación del mismo será de cuatro (4) años, contados desde la vigencia de estas Normas, y el plazo para el cumplimiento de los deberes de cesión, equidistribución

berak ezarritako epea jarriko da. Dena den, epe hori ezingo da zortzi (8) urtetik gorakoa izan, Arau hauek indarrean sartzen diren egunetik aurrera kontatzen hasita, eta Alorreko Plana behin betiko onartzen den egunetik lau (4) urte igaro eta gero.

c) Hiri lurtean mugatutako jardun unitateetan aipatutako betebeharrak betetzeko, epea honakoa izango da:

Barne Berrikuntzaren Plan Berezia idazten bada, hor ezarritako epea. Dena den epe hori ezingo da zortzi (8) urtetik gorakoa izan, Arau hauek indarrean sartzen diren egunetik aurrera kontatzen hasita, eta Alorreko Plana behin betiko onartzen den egunetik lau (4) urte igaro eta gero.

Barne Berrikuntzaren Plan Berezia beharrezkoa ez den kasuetan, epea lau (4) urtekoa izango da, Arau hauek indarrean sartzen diren egunetik aurrera kontatzen hasita.

d) Lur-sailak orube bilakatzeko eta Lurhiritargarrin dagokion eraikuntza baimena eskatzeko, epea sei (6) urtekoa izango da, Arauak hauek indarrean sartzen diren egunetik aurrera.

e) Alorreko Planeko edo Barne Berrikuntzaren Plan Berezikorubeean eraikuntza baimena eskatzeko, epea Planean ezarritakoa izango da. Dena den, epe hori ezingo da sei (6) urtetik gorakoa izan, eta zortzi (8) urtetik gorakoa, Antolamenduko Arau hauek indarrean sartzen diren egunetik aurrera.

f) Arau hauek indarrean sartzean, orube izaera izango duten lurretan eraikuntza baimena eskatzeko, epea lau (4) urtekoa izango da, une horretatik aurrera. Jardun Unitateetan ez bada Barne Berrikuntzaren Plan Berezikorubeean eskatzen, epea sei (6) urtekoa izango da, Arau hauek indarrean sartzen diren egunetik aurrera.

g) Eraikuntza obrak hasteko eta amaitzeko, epeak Arau hauek 34. artikuluan baimenak iraungitzeko eta eteteko ezartzen direnak izango dira.

7. KAPITULUA: DIZIPLINA ARAUAK.

61. artikulua: Baimenik gabeko edo baimenaren kontrako obrak.

1.- Halakoetan, hau da, baimenik gabeko edo baimena ematerakoan ezarritako baldintzen kontrako obrak gauzatzen direnean (obrak berehala etetea, obrak legeztatze eskabidea, obrak, hala badagokio, interesdunaren kargu eraustea...), prozedura, LAHALaren 184. artikuluan ezarritakoa izango da.

2.- Baimenik gabeko edo baimenean jasotako edukiaren kontra egiten diren obren kasuan, betiere, obrak erabat amaitu zirenetik lau (4) urtetik gora igaro ez diren kasuetan (legeztatze eskabidea, obrak, hala badagokio, interesdunaren kargu eraustea...), prozedura, LAHALaren 185. artikuluan ezarritakoa izango da.

3.- Aurreko kasuetan, ekintza publikoa izango da, hiritartze legea bete dadin eskatzeko, horrela ezartzen baita LAHALaren 235. artikuluan.

62. artikulua: Hirigintzako arau-hausteak eta zigor prozedura.

1.- Hirigintzako legearen aurkako arau-hauste oro hiritartzearen aurkako arau-haustetzat hartuko da, arau-hausteak zigorra merezi badu, horrela zehazten baita Hirigintza Diziplinako Arautegian, betiere, Arautegi horretan arau-hausteen tipifikazioari buruz ezarritakoari jarraituz.

2.- Udalak ordezkotzat gauzatzea burutu ahal izateko, zordunaren baimena behako da edo epailearena.

3.- Aplikatuko den prozedura, LParen 22 eta 133. artikuluetan ezarritakoa izango da, artikuluko horretara bidaltzen baitu LAHALaren 226.3 artikulua.

IV. TITULUA: UDALERRIKO LURRALDEAREN HIRIGINTZA-KO ZATIKETA.

LURRAREN ARAUBIDE OROKORRA.

1. KAPITULUA: LURRAREN HIRIGINTZAKO ZATIKETA.

63. artikulua: Lurra bere sailkapenaren arabera zatitzea.

1.- Lurra sailkatzea, hirigintzako ondorioetarako, lurra oinarritzko zatiketa egitea da, eta aprobetxamendu eta kudeaketako araubide espezifikoko zehazten ditu. Sendotutako errealtatearen arabera eta Hiri Antolamenduko Arauetan eremu bakoitzerako araututako zertarakoaren arabera, hiru mota hauek bereizten dira: hiri lurra, lur hiritargaria eta lur hiritarrezina.

64. artikulua: Lurra bere kalifikazioaren arabera zatitzea.

1.- Kalifikazio Orokorrak lurraldea zonetan eta eremuetan zatitzen du. Horietako bakoitzerako, dagozkion erabilera orokorrak eta

ción y urbanización será el señalado por el propio P.P, sin que pueda ser superior a ocho (8) años, contados desde la vigencia de estas Normas y cuatro (4) años a partir de la aprobación definitiva del Plan Parcial.

c) Para el cumplimiento de los expresados deberes en las Unidades de Ejecución delimitadas en Suelo Urbano, será:

- Cuando se redacte un Plan Especial de Reforma Interior, el señalado en éste, sin que pueda ser superior a ocho (8) años, contados desde la vigencia de estas Normas y cuatro (4) años a partir de la aprobación definitiva del Plan Especial.

- Cuando no sea preciso el Plan Especial de Reforma Interior, cuatro (4) años desde la vigencia de estas Normas Subsidiarias.

d) Para la conversión de parcelas en solares y solicitud de la correspondiente licencia de edificación en Suelo Urbano, será de seis (6) años a partir de la vigencia de estas Normas Subsidiarias.

e) Para la solicitud de la licencia de edificación en los solares de un Plan Parcial o Plan Especial de Reforma Interior, el señalado en el Plan, sin que pueda ser superior a seis (6) años a partir de su aprobación y ocho (8) desde la vigencia de estas Normas Subsidiarias.

f) Para la solicitud de la licencia de edificación en aquellos terrenos que a la entrada en vigor de estas Normas, merezcan la condición de solar, será de cuatro (4) años a contar desde ese momento. En Unidades de Ejecución cuando no se exija un Plan Especial de Reforma Interior, seis (6) años desde la vigencia de estas Normas Subsidiarias.

g) Para el comienzo y finalización de las obras de edificación, los señalados en el art. 34 de esta Normativa para la caducidad y suspensión de las licencias.

CAPITULO 7.- NORMAS DISCIPLINARIAS.

Art. 61.- Obras sin o contra licencia.

1.- Para aquellos supuestos de obras en curso de ejecución, sin licencia o sin ajustarse a las condiciones señaladas en la misma (suspensión inmediata de las obras, solicitud de legalización de obras, demolición, en su caso, a costa del interesado.), el procedimiento será el establecido en art. 184 de la LS.

2.- Para obras sin licencia o sin ajustarse al contenido de la misma, siempre que no hubieren transcurrido más de cuatro (4) años desde su total terminación (solicitud de legalización, demolición, en su caso, a costa del interesado, etc.), el procedimiento será el establecido en art. 185 de la LS.

3.- La acción será pública en los supuestos anteriores, según establece el art. 235 de la LS, para exigir el cumplimiento de la legalidad urbanística.

Art. 62.- Infracciones urbanísticas y procedimiento sancionador.

1.- Toda vulneración de la legalidad urbanística sujeta a sanción, conforme a lo determinado en el Reglamento de Disciplina Urbanística y de acuerdo con la tipificación que al efecto se establece en dicho Reglamento, será considerada infracción urbanística.

2.- Se precisa autorización del obligado o judicial, en los supuestos de ejecución subsidiaria por el Ayuntamiento.

3.- Será de aplicación el procedimiento sancionador establecido en los arts. 133 y 22 de la LPA, por remisión del art. 226.3 de la LS.

TITULO IV.- DIVISION URBANISTICA DEL TERRITORIO MUNICIPAL.

REGIMEN GENERAL DEL SUELO.

CAPITULO 1.- DIVISIONES URBANISTICAS DEL SUELO.

Art. 63.- División del suelo en razón de su clasificación.

1.- La Clasificación del Suelo constituye la división básica del suelo a efectos urbanísticos y determina los regímenes específicos de aprovechamiento y gestión. Según la realidad consolidada y el destino previsto por las Normas Subsidiarias para las distintas áreas, se distinguen el Suelo Urbano, el Apto para Urbanizar y el No Urbanizable.

Art. 64.- División del suelo en razón de su calificación.

1.- La Calificación Global divide el territorio en zonas y áreas, asignando a éstas los correspondientes usos globales y la intensi-

